



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2020ko martxoaren 11

34. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Castejongo Udalaren 2018ko ekitaldiari buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina (2. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Castejongo Udalaren 2018ko ekitaldiari buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko otsailaren 24an eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak Castejongo Udalaren 2018ko ekitaldiari buruzko fiskalizazio-txostena egin du.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c) artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 205. artikuluan ezarritakoarekin bat, hona hau ERABAKI DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2020ko otsailaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Castejongo Udalaren 2018ko ekitaldiari buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina

AURKIBIDEA

- | | |
|--|--|
| <p>I. Sarrera (3. or.).</p> <p>II. Castejongo Udala (3. or.).</p> <p>III. Fiskalizazioaren helburuak eta norainokoa (5. or.).</p> <p>IV. Iritzia (6. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">IV.1 Auditoretza finantzarioko iritzia (7. or.).</p> | <p style="padding-left: 20px;">IV.2. Legezkotasuna betetzeari buruzko iritzia (7. or.).</p> <p>V. Kontu orokorraren laburpena (8. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">V.1 2018ko ekitaldiko aurrekontu bateratuaren likidazioaren egoera-orria (8. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">V.2. 2018ko ekitaldiko aurrekontu bateratuaren egoera-orria (9. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">V.3. 2018ko ekitaldiko diruzaintza-gerakin bateratuaren egoera-orria (9. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">V.4. Udalaren 2018ko abenduaren 31ko egoera-balantzea (10. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">V.5. Udalak 2018ko ekitaldian izandako galearen eta irabazien kontua (11. or.).</p> <p>VI. Konklusioak eta gomendioak (12. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VI.1. Castejongo Udalaren Aurrekontu Orokorra (12. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VI.2 Castejongo Udalaren egoera ekonomiko-finantzario bateratua 2018-12-31n (13. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VI.3 Aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasunaren helburuak betetzea (14. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VI.4. Aurreko ekitaldietako gomendioen jarraipena (15. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VI.5. Kudeaketa-alor garrantzitsuak (16. or.).</p> <p>Behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioak (26. or.).</p> <p>Behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioen erantzuna (30. or.).</p> |
|--|--|

I. SARRERA

Kontuen Ganberak, bera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari eta 2018ko ekitaldirako fiskalizazio-programari jarraituz, Castejongo Udalaren 2018ko ekitaldiko Kontu Orokorra fiskalizatu du.

Txostenak sei epigrafe dauzka, sarrera hau barne. Bigarreanean, udal antolaketa, toki entitateak ematen dituen zerbitzuak eta araudi erregulatzailerak deskribatzen ditugu. Hirugarreanean, fiskalizazioaren helburuak eta norainokoa adierazten ditugu, eta laugarreanean Castejongo Udalaren 2018ko ekitaldiko Kontu Orokorri buruzko eta legezkotasuna betetzeari buruzko gure finantza-iritzia ematen dugu. Bosgarren atalean, Kontu Orokorren laburpen bat erantsi dugu. Seigarreanean, honako gai hauei buruz lortutako konklusio eta gomendioak ematen ditugu: Udalaren aurrekontu- eta finantza-egoera, aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasuneko printzipioen betetzea eta kudeaketa-alor garrantzitsuenak.

Landa-lana 2019ko iraila eta urria bitartean egin zuen kontratatutako auditoretza-enpresa batek, auditore baten gainbegiratzearen eta zuzendaritzaren pean, Kontuen Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboan lankidetzarekin.

Jarduketa horren emaitzak Castejongo Udaleko alkateari jakinarazi zitzaizkion, egokitzen zituzten alegazioak aurkez zitzan, Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen 19/1984 Foru Legeari 11.2 artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Emandako epean, Castejongo Udaleko alkateak alegazioak aurkeztu ditu.

Lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik eskerrak ematen dizkiegu Udaleko eta haren menpeko enteko langileei.

II. CASTEJONGO UDALA

Castejón udalerrri bat da, 2018ko urtarrilaren 1ean zuzenbideko 4.109 biztanle zituen eta 18,07 Km²-ko azalera duena.

Udalaren gobernu-organoak Osoko Bilkura eta alkatea dira.

Castejongo Udalak Musika Eskola erakunde autonomoa sortu du musika-irakaskuntzako zerbitzua emateko. Adinekoentzako egoitza-zerbitzua erakunde autonomo baten bidez ematen zen lehen; erakunde autonomo hori, ordea, 2013an iraungi zen. Haren kudeaketa eta langileak udalean integratu ziren.

Hauek dira 2018ko ekitaldia ixtean udaleko eta erakunde autonomoko datu ekonomiko eta langile-datu nagusiak:

Entitatea	Aitortutako eskubideak	Aitortutako betebeharrak	Langileak, 2018-12-31n
Udala	6.128.183	5.854.020	75
Musika eskola	192.862	187.699	11
- Bateratzearen doitzeak	-126.800	-126.800	-
Bateratua, guztira	6.194.245	5.914.919	86

2018an, Udalak 126.800 euroko ekarpena egin zion erakunde autonomoari.

Udalak, halaber, honako mankomunitate hauetan hartzen du parte:

- Erriberako Hiri Hondakin Solidoen Mankomunitatea, zeinaren bidez honako zerbitzu hauek ematen baitira: hiri hondakin solidoak kudeatzeko eta tratatzeko zerbitzuak, txakurtegia artatzea eta EEZBaren (Etxebizitzak eta Eraikinak Zaharberritzeko Bulegoa) bitartez etxebizitzak eta eraikinak zaharberritzeko hirigintza-kudeaketak.

- Ebroko Kirol Mankomunitatea, zeinaren bidez kudeatzen baitira eskualdeko beste udal batzuekin batera egiten diren kirol jarduerak.

Zerbitzu mankomunatu horiek guztiek 18.553 euroko gastua ekarri diote Udalari.

Honako hauek dira Udalak ematen dituen zerbitzu publikoak eta haiek kudeatzeko modua:

Udal zerbitzuak	Zuzeneko kudeaketa		Zeharkako kudeaketa		Mankomunitatea
	Udala	Erakunde autonomoak	Zerbitzu-kontratua	Zerbitzu-emakidarako kontratua	
Argiteria publikoa	X				
Hilerria	X				
Kale-garbiketa	X				
Edateko ura etxeetara hornitzea.	X				
Estolderia	X				
Bide publikoen zoladura	X				
Hondakinen tratamendua eta bilketa					X
Babes zibila	X				
Oinarrizko gizarte zerbitzuak	X				
Etkez etxeko laguntza zerbitzua	X				
Osasun garraioa			X		
Kirol instalazioak				X	
Kirol jardueren kudeaketa	X				
Musika eskola		X			
Adinekoentzako arreta	X				
0-3 urtekoen ikastetxea			X		
Ludoteka			X		
Sarasate kultur etxea	X				
Gizarte-etxea	X				

2018an Udalari aplikatzekoa zaion arau-esparrua honako hauek osatzen dute, funtsean: Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea; Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea; Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea, eta Aurrekontu-egonkortasunari eta Finantza-iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoa, bai eta araudi sektorial indarduna ere.

III. FISKALIZAZIOAREN HELBURUAK ETA NORAINOKOA

Castejongo Udalaren 2018ko ekitaldiko finantza-fiskalizazioa eta legezketasuna betetzeari buruzko fiskalizazioa egin dira, honako honi buruzko iritzia emateko:

- Ea Kontu Orokorrak, alderdi esanguratsu guztietan, irudi fidela ematen duen 2018ko abenduaren 31ko ondareari eta finantza-egoerari buruz, bai eta data horretan amaitutako ekitaldiko emaitza ekonomiko eta aurrekontukoei buruz ere, betiere aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko arau-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko eta aurrekontuen inguruko printzipio eta irizpideei jarraituz.

- Ea Udalak eta haren menpeko enteak ekitaldian zehar egindako jarduketak eta aurrekontu-eta finantza-eragiketak eta 2018ko ekitaldiko kontu orokorrean jasotako informazioa bat datozen, alderdi adierazgarri guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatzekoak zaizkion arauekin.

- Aurreko txostenetan emandako gomendioen betetzea.

Aurreko iritzia emateaz gainera, lanak barne hartu du 2018rako finkatutako aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasuneko helburuen betetze-maila berrikustea.

Fiskalizazioaren norainokoa 2018ko Kontu Orokorra da, zeina, 272/1998 Foru Dekretuaren arabera, honako kontabilitateko egoera-orri hauek osatzen baitute:

- Udalaren beraren eta bere erakunde autonomoen kontua:

- a) Aurrekontuaren likidazioaren espedientea.

- b) Ekonomia-, ondare- eta finantza-egoeraren espedientea: Egoera-balantzea eta galeren eta irabazien kontua.

- c) Eranskinak: Diruzaintzako egoera-orria, etorkizunerako hitzartuta dauden gastuen eta diru-sarreraren egoera-orria, balioen egoeraren egoera-orria eta mugimendua, eta tasa eta prezio publikoekin finantzatutako zerbitzuen kostuei buruzko oroitidazkia.

- Kontu Orokorraren eranskinak: Oroitidazkia, kontu bateratua, zorraren egoera eta esku-hartze txostena.

Fiskalizazioaren denbora-norainokoa 2018ko ekitaldiari dagokio, baina beste ekitaldi batzuei buruzko beharrezko egiaztapenak egin dira ezarritako helburuak hobeki lortzeko.

Legezketasuna betetzeari dagokionez, norainokoa txosten honen VI. epigrafean aipatzen diren berrikusitako jarduketari dagokie.

IV. IRITZIA

Castejongo Udalaren 2018ko ekitaldiko Kontu Orokorra fiskalizatu dugu. Haren kontabilitatearen egoera-orriak laburbilduta jaso ditugu txosten honen V. atalean.

Udalaren erantzukizuna

Kontu-hartzailletza da kontu orokorra osatzeko ardura duena. Kontua halako moduz egin behar du non leialki irudikatuko baititu Udalaren aurrekontu-likidazioa, ondarea, emaitzak eta finantza-egoera, aplikatzekoa den finantza-informazio publikoari buruzko arau-esparruarekin bat; erantzukizun horrek hartzen ditu iruzurraren edo akatsen ondoriozko ez-betetze materialetatik libre da goen Kontu Orokorra egin eta aurkezteko beharrezkoa den barne kontrolaren kontzepzioa, ezarpena eta mantentzea.

Udaleko Osoko Bilkurak 2019ko urriaren 4an onetsi zuen Kontu Orokorra.

Udalak bermatu behar du ezen urteko kontuek erakusten dituzten jarduerak, aurrekontu- nahiz finantza-eragiketak eta informazioa bat datozela aplikatu beharreko arauekin, eta halaber ezarri behar ditu helburu horretarako beharrezkotzat jotzen dituen barne-kontrolako sistemak.

Nafarroako Kontuen Ganberaren erantzukizuna

Gure erantzukizuna da iritzi bat adieraztea 2018ko ekitaldiko kontu orokorraren fidagarritasunari buruz eta egin diren eragiketen legezketasunari buruz, gure fiskalizazioan oinarrituta

Horretarako, hura egin dugu Kanpo Kontrolako Erakunde Publikoek erabakitako funtsezko fiskalizazio-printzipioen arabera, eta, zehazki, finantza-fiskalizazioari buruz ISSAI-ES 200en ezarritakoen arabera, bai eta betetzearen fiskalizazioari buruzkoa den ISSAI-ES 400 delakoan ezarritakoen arabera; halaber, kanpo kontrolako organoen fiskalizazioari buruzko gida praktikokoak erabili ditugu. Printzipio horiek eskatzen dute etikaren arloko eskakizunak bete ditzagula, bai eta fiskalizazioaren plangintza eta betearaztea egin ditzagula ere, honako helburu honekin: kontu orokorretan arrazoizko segurtasun bat lortzea eta haietan akats materialik ez egotea; eta finantzen egoera-orrietan islatutako jarduketak, finantza-eragiketak eta informazioa, alderdi adierazgarri guztietan, arau indardunen arabera izatea.

Fiskalizazio batek eskatzen du prozedura batzuk aplikatu ditzagula auditoretza-ebidentzia bat lortzeko urteko kontuetan adierazitako zenbatekoei eta informazioari buruz, bai eta eragiketen legezketasunari buruz ere. Hautatutako prozedurak auditorearen irizpidearen arabera dira, horren barne dela kontu orokorren akats materialei buruzko arriskuen balorazioa, akats hori iruzurraren nahiz akatsaren ondoriozkoa denean eta legezketasunaren ez-betetze aipagarrien ondoriozkoa denean. Arriskuari buruzko balorazio horiek egiterakoan, auditoreak barne kontrola hartzen du kontuan —entitateak kontu orokorrak egin ditzan garrantzitsua baita— inguruabarren arabera auditoretza-prozedura egokiak diseinatze aldera, eta ez entitatearen barne kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia emateko xedez.

Auditoretza batek barne biltzen du, era berean, aplikatutako kontabilitate-politiken egokitasunaren eta arduradunek egindako kontabilitate-estimazioen arrazoizketasunaren ebaluazioa, bai eta Kontu Orokorren aurkezpenaren ebaluazioa ere, oro har.

Gure ustez lortu dugun auditoretza-ebidentziak behar adinako oinarria eta oinarri egokia biltzen du finantzen eta betetzearen gainean egin dugun fiskalizazioari buruzko iritziak funtsa izateko.

IV.1 AUDITORETZA FINANTZARIOKO IRITZIA

Iritziaren oinarria, salbuespenekin

Ondasunen inbentarioak ez ditu jasotzen Udalaren ondasun eta eskubide guztiak; hartara, ezinezkoa izan da ibilgetuaren kontabilitate-saldoaren arrazoizkotasuna egiaztatzea. Saldo horrek 44.794.772 euroko balorazioa dauka 2018ko abenduaren 31ko egoera-balantzean.

Auditoretza finantzarioko iritzia, salbuespenekin.

Gure iritziz, "Iritziaren oinarria, salbuespenekin" atalean azaldutako norainokoaren mugak izan ditzakeen eraginengatik ez bada, Udalaren Kontu Orokorrak irudi zehatza erakusten du alderdi esanguratsu guztietan, Udalaren ondareari eta 2018ko abenduaren 31ko finantza-egoerari dago-kienez. Halaber, haren emaitza ekonomiko eta aurrekontukoak islatzen dituzte, data horretan amaitutako ekitaldiari dagozkionak, aplikatzekoa den informazio finantzarioari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko eta aurrekontuetako printzipio eta irizpi-deei jarraituz betiere.

IV.2. LEGEZKOTASUNA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

Legezkotasuna betetzeari buruzko iritziaren oinarria, salbuespenekin

- Udalak onetsitako eta argitaratutako azken plantilla organikoa 2011ko ekitaldikoa da, eta ez dago jasota gerora bertako langileen egungo egoera jasotzen duen onespenerik.
- Musika Eskola erakunde autonomoak ez du plantilla organikorik.
- 705.841 euroko gastuak ordaindu dira kontratu-euskarririk gabeko zerbitzu eta horniduren-gatik, kasu batzuetan dagokion adjudikazio-prozedura izapidetu ez delako, eta beste batzuetan kontratuen gehieneko indarraldia gainditu delako. Gastu horiek ondasun eta zerbitzuetako gastu arrunten kapituluan aitortutako betebeharrak guztien ehuneko 31 izan dira.

Legezkotasuna betetzeari buruzko iritzia, salbuespenekin

Gure iritziz, egindako lanaren norainokoa kontuan hartuta, "Legezkotasunaren betetzeari buruzko iritziaren oinarria, salbuespen batzuekin" paragrafoan azaldutako ez-betetzeen eraginaren-gatik ez bada, Udalaren 2018ko ekitaldiko jarduerak, finantza-eragiketak eta sozietatearen egoera-orri finantzarioetan azaldutako informazioa bat datoz, garrantzizko alderdi guztietan, aplikatze-koak diren arauekin.

V. KONTU OROKORRAREN LABURPENEA

Ondoren 2018ko ekitaldiko kontu orokorraren egoera-orri bateratu garrantzitsuenak (Udala eta erakunde autonomoak) jasotzen dira.

V.1 2018ko EKITALDIKO AURREKONTU BATERATUAREN LIKIDAZIOAREN EGOERA-ORRIA**Gastuak, kapituluz kapitulu**

Deskribapena	Hasierako kreditua	Aldaketa	Behin betiko kreditua	Aitortutako betebeharrak	Betetakoaren ehunekoa	Ordainketak	Ordainketa (%)	Ordaintzeko dagoena
1. Langile-gastuak	2.759.916	0	2.759.916	2.615.494	95	2.599.794	99	15.700
2. Ondasun eta zerbitzuetan egindako gastu arruntak	2.342.080	2.016	2.344.096	2.274.512	97	1.885.212	83	389.301
3. Finantza-gastuak	54.600	0	54.600	44.527	82	44.527	100	0
4. Transferentzia arruntak	133.380	0	133.380	99.164	74	45.168	46	53.995
5. Kontingentziatarako eta bestelako ezusteetarako funtsa	0	0	0	0	0	0	0	0
6. Inbertsio errealak	361.028	138.201	499.229	389.919	78	151.652	39	238.267
7. Kapital-transferentziak	0	0	0	0	0	0	0	0
8. Finantza-aktiboak	0	0	0	0	0	0	0	0
9. Finantza-pasiboak	492.450	0	492.450	491.303	100	491.303	100	0
Guztira	6.143.454	140.217	6.283.671	5.914.919	94	5.217.656	88	697.263

Diru-sarrerak kapituluz kapitulu

Deskribapena	Hasierako aurreikuspena	Aldak.	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako eskubideak	Betetakoa (%)	Kobrantzak	Kobrantzak (%)	Kobratzeko dagoena
1. Zuzeneko zergak	3.105.886	0	3.105.886	3.077.351	99	2.966.400	96	110.951
2. Zeharkako zergak	45.000	0	45.000	17.338	39	17.205	99	133
3. Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	1.088.798	0	1.088.798	1.170.991	108	1.088.271	93	82.720
4. Transferentzia arruntak	1.567.692	0	1.567.692	1.586.450	101	1.585.384	100	1.067
5. Ondare bidezko diru-sarrerak eta herri-lurren aprobetxamendua	279.870	0	279.870	272.301	97	106.684	39	165.617
6. Inbertsio errealen besterentzea	0	0	0	0	0	0	0	0
7. Kapital-transferentziak eta beste diru-sarrera batzuk	56.208	217	56.425	69.814	124	69.813	100	0
8. Finantza-aktiboak	0	140.000	140.000	0	0	0	0	0
9. Finantza-pasiboak	0	0	0	0	0	0	0	0
Guztira	6.143.454	140.217	6.283.671	6.194.24	99	5.833.757	94	360.488

V.2. 2018Ko EKITALDIKO AURREKONTU BATERATUAREN EGOERA-ORRIA

Kontzeptua	2017*	2018
+ Aitorturiko eskubide garbiak	5.974.181	6.194.245
- Aitorturiko betebeharrak	6.200.112	5.914.919
Aurrekontu-emaiza	-225.931	279.326
Doikuntzak		
- Finantzaketaren desbideratze positiboak	66.920	0
+ Finantzaketaren desbideratze negatiboak	0	54.561
Diruzaintza-gerakinarekin finantzatutako gastuak	407.589	106.226
Aurrekontu-emaiza doituak	114.738	440.113

* Auditatu gabeko ekitaldia

V.3. 2018ko EKITALDIKO DIRUZAINZTA-GERAKIN BATERATUAREN EGOERA-ORRIA

Kontzeptua	2017*	2018
(+) Kobratzeko dauden eskubideak	414.075	419.598
(+) Diru-sarrerak: Aurtengo ekitaldia	349.080	362.338
(+) Diru-sarrerak: Itxitako ekitaldiak	989.976	1.012.496
(+) Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	76.900	78.475
(+) Ordainketen itzulketak	4.577	4.577
(-) Nekez kobratzeko eskubideak	932.838	964.986
(-) Aplikatzeko dauden diru-sarrerak	73.620	73.301
(-) Ordaintzeko dauden betebeharrak	937.917	1.400.349
(+) Gastuen aurrekontua: Aurtengo ekitaldia	316.091	697.262
(+) Gastuen aurrekontua: itxitako ekitaldiak	300.941	338.171
(+) Diru-sarreraren itzulketak	3.711	5.561
(-) Aplikatzeko dauden gastuak	536	2.704
(+) Aurrekontuz kanpoko gastuak	317.710	362.058
+ Finantzaketaren desbideratze metatu negatiboak	0	49.643
(+) Diruzaintzako funts likidoak	1.165.735	1.862.582
Diruzaintzako gerakina, guztira	641.893	931.473
Diruzaintza-gerakina, finantzaketa atxikia duten gastuak direla-eta	5.334	0
Baliabide atxikien diruzaintza-gerakina	487.259	521.880
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	149.300	409.593

* Auditatu gabeko ekitaldia

V.4. UDALAREN 2018ko ABENDUAREN 31ko EGOERA-BALANTZEA

Aktiboa

Deskribapena	20117*	2018
A Ibilgetua	44.406.592	44.794.772
1 Ibilgetu materiala	15.521.834	15.601.505
2 Ibilgetu ez-materiala	839.662	843.866
3 Erabilera orokorrerako azpiegiturak eta ondasunak	27.520.725	27.825.030
4 Herri-ondasunak	524.371	524.371
5 Finantza-ibilgetua	0	0
C Zirkulatzaila	2.587.799	3.312.111
7 Izakinak	0	0
8 Zordunak	1.187.242	1.216.199
9 Finantza-kontuak	1.400.557	2.095.912
10 Finantzaketaren egoera iragankorrak, aldizkatzeak eragindako doitzeak	0	0
11 Aplikatzeko dagoen emaitza (ekitaldiko galera)	0	0
Aktiboa, guztira	46.994.391	48.106.884

* Auditatu gabeko ekitaldia

Pasiboa

Deskribapena	2017*	2018
A Funts berekiak	40.305.426	41.441.752
1 Ondarea eta erreserbak	6.406.257	6.406.257
2 Ekitaldiko emaitza ekonomikoa (etekina)	20.940.904	22.007.417
3 Kapitaleko dirulaguntzak	12.958.264	13.028.078
B Arrisku eta gastuetarako hornidurak	0	0
C Epe luzeko hartzekodunak	5.623.992	5.132.688
4 Jasotako mailegu, fidantza eta gordailuak	5.623.992	5.132.688
D Epe laburreko hartzekodunak	1.064.973	1.532.443
5 Itxitako aurrekontuetako hartzekodunak eta aurrekontuez kanpokoak	992.714	1.460.930
6 Aplikatzeko dauden partidak eta aldizkatzearen ondoriozko doitzeak	72.259	71.513
Pasiboa, guztira	46.994.391	48.106.884

* Auditatu gabeko ekitaldia

V.5. UDALAK 2018ko EKITALDIAN IZANDAKO GALEREN ETA IRABAZIEN KONTUA

Ekitaldiko emaitza arruntak

Zor	2017*	2018	Hartzeko	2017*	2018
Deskribapena			Deskribapena		
3 Hasierako izakinak	0	0	3 Bukaerako izakinak	0	0
61 Langile-gastuak	2.154.804	2.134.626	70 Salmentak	983.945	1.044.803
62 Finantza-gastuak	52.104	44.527	71 Ondasunaren eta enpresaren errenta	235.991	316.161
63 Tributuak	8.860	8.786	72 Produktioari eta inportazioari lotutako tributuak	2.953.823	2.861.993
64 Lanak, zuzkidurak eta kanpoko zerbitzuak	2.135.558	2.253.719	73 Errentaren eta ondarearen gaineko zerga arruntak	216.145	231.973
65 Gizarte prestazioak	264.724	306.914	75 Ustiapenerako dirulaguntzak	61	120.466
66 Ustiapenerako dirulaguntzak	0	0	76 Transferentzia arruntak	1.352.924	1.442.625
67 Transferentzia arruntak	204.416	225.963	77 Kapitalaren gaineko zergak	19.373	724
68 Kapital-transferentziak	0	0	78 Bestelako diru-sarrerak	42.883	39.625
69 Amortizazio eta zuzkiduretarako hornidura	0	0	79 Beren helbururako aplikatutako hornikuntzak	0	0
800 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo hartzekoduna)	984.678	1.083.833	800 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo zorduna)	0	0
Guztira	5.805.144	6.058.368	Guztira	5.805.144	6.058.368

* Auditatu gabeko ekitaldia

Ekitaldiko emaitzak

Deskribapena	2017*	2018	Deskribapena	2017*	2018
80 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo zorduna)	0	0	80 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo hartzekoduna)	984.678	1.083.834
82 Ohiz kanpoko emaitzak (saldo zorduna)	0	6	82 Ohiz kanpoko emaitzak (saldo hartzekoduna)	0	0
84 Itxitako aurrekontuetako esku-bide eta betebeharren aldaketa (Saldo zorduna)	5.317	6.542	84 Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa (Saldo hartzekoduna)	0	0
89 Etekin garbia guztira (Saldo hartzekoduna)	979.360	1.077.286	89 Etekin garbia guztira (Saldo zorduna)	0	0
Guztira	984.677	1.083.834	Guztira	984.678	1.083.834

* Auditatu gabeko ekitaldia

VI. KONKLUSIOAK ETA GOMENDIOAK

Egindako fiskalizazioaren atal gisa, ondoren ohar eta iruzkin batzuk gehitu ditugu, bai eta Ganbera honen ustez fiskalizazio txosten honen hartzaile eta erabiltzaileentzat interesgarri gerta daitekeen informazio gehigarri bat ere.

Orobat, fiskalizazio-txostenaren gaineko iritziaren salbuespenei buruzko informazio xehea gehitu da.

Halaber, txostenak jasotzen ditu Ganbera honen ustez Udalaren kudeaketa ekonomiko administratiboa hobetzeko beharrezkoak diren gomendioak.

VI.1. CASTEJONGO UDALAREN AURREKONTU OROKORRA

Udalak eta haren erakunde autonomoa den Musika Eskolak 2018rako zeukaten hasierako aurrekontu bateratuak agertzen zituen diru-sarreraren eta gastuen hasierako aurreikuspenak 6,14 milioi eurokoak ziren.

Gastuetan eta diru-sarreretan goranzko aurrekontu-aldaketa batzuk egin ondoren, 0,14 milioi eurokoak —hasierako kredituen ehuneko 2,28 egiten dute—, behin betiko gastu eta diru-sarrera bateratuek 6,28 milioi euro egiten dute.

Aurrekontuaren likidazioa

2018an, gastuek 5,91 milioi euro egin zuten, eta betetze-maila ehuneko 94koa eta ordaintze-maila ehuneko 88koa izan dira.

Diru-sarrerei dagokienez, 2018an 6,19 milioi euroko eskubideak aitortu ziren, eta betetze- eta kobratze-mailak ehuneko 99 eta ehuneko 94koak izan ziren, hurrenez hurren.

Taula honetan ageri dira Udalaren eta haren erakunde autonomoaren gastuen xedea eta finantzaketa, ehunekotan:

Gastuaren izaera	Ehunekoa	Finantza-iturria	Ehunekoa
Langileak	44	Tributu bidezko diru-sarrerak	66
Bestelako gastu arruntak	40	Transferentziak	27
Inbertsio errealak	7	Ondare bidezko diru-sarrerak eta beste	7
Kapital-transferentziak	0		
Finantza-eragiketak	9		

Gastu arruntek guztizko gastuaren ehuneko 84 esplikatzeko dute; horietatik, ehuneko 44 langile-gastuak dira. Finantza-eragiketak ehuneko bederatzikoak izan dira, eta inbertsioak, ehuneko zazpikoak.

Diru-sarrerei dagokienez, bereziki esanguratsua da jasotako transferentzien ehuneko txikia, ehuneko 27koa izan baita; transferentzia horiek, izan ere, diru-sarrera propioak baino nabarmen txikiagoak izan dira: guztira % 73 izan dira, eta horietatik % 66 zerga-izaerakoak dira.

Jarraian erakusten dugu 2018 eta 2017ko ekitaldietako aurrekontu-likidazio bateratuarekin zerkusua duen adierazle-multzozko baten konparazioa:

	2017	2018	2018/2017 aldea (%)
Aitortutako eskubideak, guztira	5.974.181	6.194.245	4
Aitortutako betebeharrak, guztira	6.200.112	5.914.919	-5
Diru-sarrera arruntak (1. kapitulutik 5.era)	5.871.881	6.124.432	4
Funtzionamendu gastuak (1., 2. eta 4. kapituluak)	4.828.590	4.989.169	3
Kapitaleko diru-sarrerak	102.300	69.813	-32
Kapitaleko gastuak	210.609	389.919	85
Saldo ez-finantzarioa	882.878	770.630	-13
Aurrekontu-emaizta doitua	114.738	440.113	284

Aurreko datuak eta haien bilakaera direla-eta honako hau nabarmendu behar dugu:

- 2018ko guztizko diru-sarrerek 220.064 euroko igoera izan dute; hots, ehuneko 4ko igoera gertatu da aurreko ekitaldikoekin alderatuta. Izaerari erreparatuz gero, igoerarik handiena diru-sarrera arruntetan eman da: 252.551 euro igo dira, ehuneko lau; kapitaleko diru-sarrerak, berriz, 32.487 euro jaitsi dira, aurreko ekitaldian baino ehuneko 32 gutxiago ia baitira.

- Gastuek 285.194 euro egin dute behera, eta horrek ehuneko bosteko murrizketa ekarri du iazko ekitaldiarekin alderatuta. Haien izaerari erreparatuta, murrizketa, batez ere, gastu finantzarioei eta pasibo finantzarioei dagokie, guztira ehuneko 54 murriztu baitziren.

- Aurrekontu-emaizta doitua 325.375 euro igo da, hau da, ehuneko 284ko igoera izan du aurreko ekitaldikoarekin alderatuta.

VI.2 CASTEJONGO UDALAREN EGOERA EKONOMIKO-FINANTZARIO BATERATUA 2018-12-31N

Ondoren 2018ko ekitaldiari buruzko adierazle ekonomiko-finantzario batzuk ematen ditugu, bai eta aurreko ekitaldikoekiko alderaketa ere:

	2017	2018	2018/2017 aldea (%)
Aurrezki gordina	1.043.291	1.135.263	9
Finantza-zama	1.160.914	535.831	-54
Aurrezki garbia	-117.622	599.432	610
Finantza-zamaren adierazlea	% 20	% 9	-56
Aurrezki gordinak diru-sarrera arruntan gainean egiten duen ehunekoa	% 18	% 19	4
Zorpetze-ahalmena (%)	% -2	% 10	-589
Zorra, guztira	5.640.199	5.148.895	-9
Biztanle bakoitzeko zorra	1.370	1.253	-9
Zorpetze-maila (zor bizia/diruzaintza arruntak)	% 96	% 84	-12
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	149.300	409.593	174
Autonomia fiskala (tributuak/aitortutako eskubideak)	% 69	% 66	-4
Kobranta zalantzarriaren indizea (Kobranta zalantzarriko zordunen saldoa/zordunak)*100	% 79	% 79	-

Aurreko taulatik, honako alderdi hauek aipatu behar ditugu:

- Diru-sarrera arruntak funtzionamenduko gastuak baino proportzio handiagoan igotzeak berekin ekarri du aurrezki gordina 91.972 euro handitzea; hau da, 2017koaren aldean ehuneko bederatzi igo da. Gainera, finantza-zama nabarmen jaitsi da —ehuneko 54—, eta, horrek aurrezki garbiaren igoera ekarri du, eta aurrezki garbiak negatiboa izateari utzi dio; izan ere, 599.432 positiboa izatera iritsi da, eta horrek ehuneko 610eko igoera adierazten du.

- Ekitaldiaren itxierako zor bizia aurreko ekitaldikoa baino ehuneko bederatzi txikiagoa da; horrek esan nahi du zorpetze-maila ehuneko 96tik ehuneko 84ra jaitsi dela, eta zorpetze-ahalmena hobetu egin dela; izan ere, negatiboa izateari utzi dio eta ehuneko hamarrekota da jada.

- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakinak izan duen igoera azpimarratu behar da; izan ere, aurreko ekitalditik ehuneko 174 igo da, 409.593 eurokoa izateraino. Horrek adierazten du hurrengo ekitaldietan aurrekontu-aldaketak finantzatzeko gaitasuna badagoela.

Azken finean, finantza-egoera saneatua da, aztertutako adierazleen arabera, zeinak positiboak baitira eta aurreko ekitaldiarekiko hobera egin baitute; halere, zorpetze-maila handia da: diru-sarrera arruntan ehuneko 84koa. Magnitude horri dagokionez, komeni da adieraztea zorpetze berria baliatzeko Nafarroako Gobernuaren alde aurreko baimena beharko litzatekeela, diru-sarrera arruntan ehuneko 75etik gorakoa delako, eta zorpetzeko gehieneko muga ehuneko 110 delako finantza-iraunkortasuneko terminoetan, ogasun-esparruan xedatutakoaren arabera.

VI.3 AURREKONTU-EGONKORTASUNEO ETA FINANTZA-IRAUNKORTASUNAREN HELBURUAK BETETZEA.

Aurrekontu-egonkortasunari eta Finantza-jasangarritasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoa aplikatzearen ondorioetarako, SEC'10 Kontabilitate Nazionaleko irizpideei jarraituta, honako ente hauek hartzen dira tokiko administrazio publikotzat: Udala bera eta Musika Eskola erakunde autonomoa.

Castejongo Udalak 2017-2018 aldirako Ekonomia eta Finantza Plana onetsi zuen 2017ko irailaren 5ean, Aurrekontu-egonkortasunari eta Finantza-iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren 21. eta 23. artikuluetan ezarritakoarekin bat etorri, 2016ko ekitaldiko gastuaren araua ez betetzeagatik. 2017. ekitaldiko likidazioan, berriz ere ez zen bete.

Administrazio publikotzat hartutako entitateek honako datu hauek izan dituzte:

Aurrekontu-egonkortasuna

774.407 euroko finantzaketa-gaitasuna sortu da.

Finantzaketa-gaitasuna

	Zenbatekoa, 2018
Finantzaz besteko diru-sarrerak	6.194.245
Gastu ez-finantzarioak	5.423.615
Saldo ez-finantzarioa	770.630
SEC dela-eta egindako doikuntzak	
Itxitako ekitaldietako eta aurtengo ekitaldiko 1., 2. eta 3. kapituluetakoko diru-sarreraren kobrantzak	-1.963
Europar Batasunaren dirulaguntzak	0
Geroratutako ordainketa	0
Aurrekontuari aplikatzeko dauden gastuak	5.171
Kontabilitate-sortzapeneko aldeak	570
Finantzaketa-gaitasuna	774.407

Gastuaren araua

2018ko ekitaldiko gastu konputagarria 41.295 euro txikiagoa da gehieneko gastu-muga baino; beraz, bete egiten da gastu-araua, ez baita gainditzen 2018rako baimendutako alde-tasa, ehuneko 2,4koa.

Gastu-araua

	2018ko zenbatekoa
2017ko gastu konputagarri bateratua	4.447.029
% 2,4ko igoera	106.728
Diru-sarreraren igoeraren aurreikuspena	0
2018rako aurreikusitako gastu-muga	4.553.757
2018ko gastu konputagarri bateratua	4.512.462
2018ko gastuan izandako desbideratzea	-41.295

Finantza-iraunkortasuna

- Zor publikoaren iraunkortasunari dagokionez, zorpetzea diru-sarrera arrunten ehuneko 84 da, ezarritako ehuneko 110eko mugaren azpitik.

- Merkataritza-zorren iraunkortasunari dagokionez, lehen hiru hiruhilekoetan ez da betetzen, hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epeak berankortasun-araudian aurreikusitako gehieneko epea gainditzen baitu, taula honetan ikus daitekeen bezala:

Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epea

Hiruhilekoa	Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epea
Lehenengoa	13,08
Bigarrena	44,18
Hirugarrena	51,94
Laugarrena	29,44

Aztertutako informazioa dela-eta honako hau aipatu behar dugu:

a) Ordaintzeko batez besteko epeak lehen hiruhilekotik gainerako hiruhilekoetara izan duen bilakaera 2018ko apiriletik aurrera aplikatu beharrekoa den 1040/2017 Errege Dekretuan ezarritako kalkulu-metodologia berriaren ondorioa da. Horri dagokionez, lehen hiruhilekoan aplikatutako metodologiak adierazten du balio positiboetan ordaintzeko batez besteko epearen ez-betetzea egon dela; metodologia berriarekin, berriz, ez-betetzea soilik 30 egunetik gorako balio positiboetan gertatu da.

b) Udalak ez du Diruzaintza Planik aipatutako 2/2012 Lege Organikoan ezarritakoaren araberak.

VI.4. AURREKO EKITALDIETAKO GOMENDIOEN JARRAIPENA

2010eko ekitaldiaren fiskalizazioan, guztira 26 gomendio egin ziren; horietatik, txosten hau egiteko datan, 15 daude betetzeke.

VI.5. KUDEAKETA-ALOR GARRANTZITSUAK

VI.5.1. Alderdi orokorrak

Castejongo Udalaren Osoko Bilkurak 2018ko azaroaren 7an eman zion hasierako onespena 2018ko ekitaldiko Aurrekontu Orokorrari. Behin betiko onespena, berriz, 2018ko abenduaren 14ko NAOn argitaratu zen. Data horretara arte, 2017ko ekitaldiko aurrekontu luzatua egon zen indarrean.

Aurrekontua likidatzeko espedientea 2019ko maiatzaren 2an onetsi zen. Kontu Orokorrari buruz egindako berrikuspenetik, honako hau adierazi nahi dugu:

- Ez dago inbentario gaurkoturik. 2017ko ekitaldian, inbentario partzial bat egin zen, zeinean ez baitziren sartu ibilgetuko ondasun guztiak. Gainera, 2018ko ekitaldiko inbertsioak ez daude hartan jasota; hori dela eta, ebidentziarik ez dago egoera-balantzean itxieran ageri den saldoa, 44.794.772 eurokoa, zuzena izateari buruz.

- Kontuetako batean titular gisa ageri da oraindik ere Udaleko aurreko kontu-hartzailea, zeina ez baitago plantillan 2013ko ekitalditik.

- Udalaren 2018ko abenduaren 31ko Egoera Balantzearen Aktibo Zirkulatuzaileko "Finantza Kontuak" deitutako 9. epigrafean, aplikatzeke dauden beste partida batzuegatiko saldo zordun bat ageri da, 254.893 eurokoa. Udalak ez daki haren izaera eta jatorria zein diren.

- Udalaren 2018ko abenduaren 31ko Egoera Balantzeko funts propioen "2. Ekitaldiko emaitza ekonomikoak" epigrafean jasotako saldoak ez du islatzen 2018ko abenduaren 31ko ekitaldiko emaitza-kontuan ageri den saldoa; izan ere, aurreko ekitaldietako emaitza metatuak sartu dira, 2018ko abenduaren 31ko Egoera Balantzeko funts propioen "1. Ondarea eta erreserbak" epigrafean jaso beharko lirakeenak.

- Udalaren 2018ko abenduaren 31n itxizako ekitaldietako aurrekontuen ordaintzeke dauden betebeharrak 217.680 euroko saldoa hartzen dute, 2008ko ekitaldian udal-igerilekuak birmoldatzeko obrak egiteko enpresa adjudikazio-hartzailearekin hartutako zor bati dagokiona. 2009an, enpresa hori hartzekodunen konkurtsoan deklaratu zen, eta horren amaiera eta sozietatearen azkentzea 2015eko 195. BOEn argitaratu ziren, urriaren 13koan.

- Auditatutako ekitaldia ixtean bizirik dauden prozedura judizialei dagokienez, nabarmentzekoa da "El Romeral" kirol-instalazioen kudeaketa integraleko kontratuaren enpresa adjudikazio-hartzaileak jarritako bi administrazioarekiko auzi-errekurtso badaudela, udalak onetsitako 2012-2015 ekitaldietako eta 2016ko ekitaldiko likidazioei buruzkoak. 2019ko ekitaldian, bi epaiak eman dira, eta haietan udala kondenatzen da enpresaren galera guztiak eta mantentze-gastuak finantzatzera. Udalak epai horien aurka jarritako errekurtsioak ezesten badira, 120.000 euro inguruko gastuei aurre egin beharko die. Kontu Orokorrako informazioan ez dago horrelako kontingentziarik.

Gure gomendioak:

- *Udalaren aurrekontu orokor bakarra, likidazioa eta erakundearen kontu orokorra onestea kasu bakoitzerako legez aurreikusitako epean.*

- *Udal-ondasun guztien inbentarioa eguneratzea eta onestea.*

- *Aplikatzeko dauden partiden 254.893 euroko saldoaren jatorria aztertzea.*

- *Egoera-balantzearen ekitaldiko emaitza ekonomikoaren kontuan jasotzea ekitaldi bakoitzean lortutakoa bakarrik, informazioa urtero erregularizatuz, halako moduz non aurreko ekitaldietako emaitza metatua dagokion epigrafean islatuko baita.*

- *Udaleko aurreko kontu-hartzaileari baja ematea kontuetako batean baimendutako pertsona gisa.*

- *Kontu Orokorraren Kontu-hartzailetzaren txostenean sartzeari esanguratsua izateagatik udalarentzat finantza-betebeharrak izan ditzaketen baliabide judizialak.*

VI.5.2. Barne-kontrola

Kontu-hartzailetzaren barne-kontrola dela eta, honako hau esan behar dugu:

Tokiko aurrekontu- eta ogasun-esparruak eginkizun hirukoitza ezartzen du: kontu-hartzailearena, finantza-kontrolarena eta eraginkortasunaren kontrolarena. Udalean eta erakunde autonomoan, Kontu-hartzailetzak ez du kontrol finantzariorik eta eraginkortasunaren gaineko kontrolik egiten.

Barne kontrola soilik kontu-hartzailetzaren eginkizunaren bitartez egiten da, gastuen aldez aurreko fiskalizazio osoaren bitartez. Barne-kontrolako eginkizunez gain, 6/1990 Foru Legeak Kontu-hartzailetzari emandako zereginak dira aholkularitza eta kudeaketa ekonomiko-finantzarioa eta aurrekontuena, bai eta kontabilitatea ere; eginkizun horiek Udaleko kontu-hartzaileak betetzen ditu, eta ez dago langile-baliabide gehiagorik.

2018ko ekitaldian, guztira, 50 eragozpen-ohar egin dira; honako hauek, hain zuzen:

Gaia	Zenbakia	Izaera
Langile-gastuak	6	Etete-izaerakoa
Zerbitzu-gastuak	40	Etete-izaerakoa
Diru-sarrerak (udal tasak)	4	Etete-izaerarik gabea

Zerbitzu-gastuei buruzko eragozpen-oharren barruan, aipatu beharra daukagu ezen eragozpen-oharrak egon direla zerbitzu beraren gaineko hileko faktura guztiak direla eta.

Kasu guztietan, desadostasunak alkateak ebatzi zituen, eragozpen-oharren aurkako erabakiak hartuz.

Gomendatzen dugu baloratzea ea kontu-hartzailetzaren giza baliabideak nahikoak ote diren barne-kontrola egiteko, eta, hala badagokio, udalean eta erakunde autonomoan behar beste baliabide jartzea finantza- eta eraginkortasun-kontrola egiteko.

VI.5.3. Udaleko langile-gastuak

Langile-gastuak 2,44 milioi eurokoak izan ziren, behin betiko aurreikusitako aurrekontu-kredituen ehuneko 95, alegia. Zenbateko hori Udalak ekitaldian egindako gastu guztien ehuneko 42 da.

Hona gastu horien xehatzea eta 2017ekoekiko alderaketa:

	Aitortutako betebeharrak, 2017 garbiak	Aitortutako betebeharrak, 2018 garbiak	Aldea	%
Gobernu-organoak eta zuzendaritzako langileak	59.740	53.040	-6.700	-11
Funtzionarioak	861.425	838.201	-23.224	-3
Lan-kontratudun langileak	754.466	776.155	21.689	3
Bestelako langileak	3.044	3.377	333	11
Kuota sozialak	735.013	766.778	31.765	4
Guztira	2.413.688	2.437.551	23.863	1

Bi ekitaldien arteko aldeek honako hauek jasotzen dituzte: aurrekontuei buruzko legeetan aurreikusitako ordainsari-igoera eta udaleko langileek jarritako soldata-erreklamazioengatikoko epai judizialak betearaztea.

Egin den berrikuspenaren ondorioak ondoko alderdi hauek dira:

- 2011ko plantilla organikoa —alegia, behin betiko onetsi eta argitaratu zen azken plantilla— honako lanpostu hauek osatzen zuten:

Zenbat	Lanpostuak
Funtzionarioak	29
Lan-kontratudun finkoak	22
Guztira	51

- Honako hau da zen lanpostuen egoera:

Plantilla organikoa, 2011	Udala
Postu beteak	35
Lanpostu hutsak	16
Guztira	51
Lanpostu hutsak (%)	% 31
Betetako lanpostu hutsak	12
Betetako lanpostu hutsak (%)	% 75

Esan behar dugu 2018ko abenduaren 31n 75 langile zeudela.

- 2013an, “Egoitza” erakunde autonomoa desegin zenean, langileak (13 langile) eta udalaren aurrekontuetan langile horiek egindako gastuak integratu egin ziren, baina plantilla organikoa ez zen aldatu.

- 2017ko martxoaren 9an, lan-ikuskaritzaren aktaren bidez, eskatu zen zazpi langile kalifikatzea langile mugagabe ez-finko gisa. Ondoren, Udalaren Osoko Bilkurak 2017ko martxoaren 31n hartutako erabakiaren bidez, kontratu-mota aldatu zen kotizazio-ondorioetarako.

- 2017ko eta 2018ko ekitaldietan, udaleko plantilla organikoan aurreikusi gabeko osagarriak ordaintzeko hainbat proposamen eraman dira osoko bilkurara, epai judizialak betearazteko. Halaber, 2019ko ekainean, Iruñeko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiak epaia eman zuen, zeinaren bidez lau funtzionarioen mailako osagarria jasotzeko eskubidea aitortzen baita, azken lau ekitaldietarako atzeraeraginezko izaerarekin.

- Ez dago jasota 2018ko ekitaldirako enplegu-eskaintza publikorik egin izana.

- Langileen nominen lagin bati buruz egindako azterketatik ondorioztatzen da, oro har, gastuak behar bezala kontabilizatuta daudela, hautatutako funtzionarioei ordaindutako ordainsariak plantilla organikoaren arabera betetzen duten lanpostuari dagozkiola eta, lan-kontratuko langileen kasuan, aplikatu beharreko lan-esparruari eta lehen aipatutako epai judizialean ezarritakoari dagozkiola. Zerga-atxikipenak behar bezala egin dira, zenbait kasutan izan ezik, kasu horietan PFEZren atxikipen-portzentajeak atxikipen-tauletan ezarritakoak baino txikiagoak baitira.

Gure gomendioak:

- *Udaleko langileen egungo egoera jaso eta arautuko duen plantilla organikoa onestea.*
- *PFEZaren atxikipena kasu guztietan egitea, aplikatu beharreko taulen arabera.*

VI.5.4. Udalaren ondasun eta zerbitzuetan egindako gastu arruntak

Ondasun eta zerbitzuetan egindako gastu arruntek 2,27 milioi euro egin zuten. Ekitaldian aitortutako betebeharren guztizkoaren ehuneko 39 egiten dute. Haien betetze-maila behin betiko kredituen ehuneko 97koa izan da, eta ehuneko bost egin zuten gora aurreko ekitaldiarekin alderatuta.

Gastuen honako partida hauek berrikusi ditugu:

Partida	Aitortutako betebehar garbiak, 2018
Edateko uraren goi-hornidura	190.052
Jantoki-zerbitzua	150.785
Ikuztegi-zerbitzua	134.032
Hurtzaindegi-zerbitzuaren kudeaketa	132.360
Argiteria publikorako energia elektrikoa	110.497
Igerilekuko energia elektrikoa	93.109
Udal igerilekuetako berokuntzarako erregaia	92.259
Ikastetxe publikoaren garbiketa-zerbitzua	74.218
Kontsultak, lege-aholkularitza eta epaiak betearaztea	32.852
Osasun garraioa	24.063

Gure azterketatik ateratzen dugun konklusioa da ezen, oro har, berrikusitako aurrekontu-partidetako gastuak onetsita daudela, kontu-hartzaileak baimenduta daudela, zuzen kontabilizatu direla eta epean ordaindu direla. Dena den, akats hauek aipatu behar ditugu:

- Honako gastu hauek fakturatu dira, aldez aurretik adjudikazio-prozedurarik lizitatu gabe:

Partida	Aitortutako betebehar garbiak, 2018
Argiteria publikorako energia elektrikoa	110.497
Igerilekuetako energia elektrikoa	93.109
Udal igerilekuetako berokuntzarako erregaia	92.259
Guztira	295.865

Gastu horiek Udaleko kontu-hartzaileak egindako eragozpen-oharren zati bat dira, eta gure txostenaren VI.5.2 atalean aztertu dira.

- Aurreko adjudikazio-hartzaileak hurrengo gastuak egiten jarraitu du, aurreikusitako luzapen guztiak agortu diren arren, eta ez da zerbitzu horien lizitazio berririk egin:

Partida	Aitortutako betebehar garbiak, 2018
Jantoki-zerbitzua	150.785
Ikuztegi-zerbitzua	134.032
Ikastetxe publikoko garbiketa-zerbitzua	74.218
Osasun garraioa	24.063
Dirubilketa exekutiboaren zerbitzua	26.878
Guztira	409.976

Gastu horiek Udaleko kontu-hartzaileak egindako eragozpen-oharren zati bat dira, eta gure txostenaren VI.5.2 atalean aztertu dira.

- Udalak, oro har, ez ditu betetzen hornitzaileei ordaintzeko lege ezarritako dauden epeak, kontratazio publikoaren esparrurako aurreikusitakoak.

Gure gomendioak:

- *Kasuko kontratazio-espeditenteak lizitatzea kontratuen indarraldia amaituta duten zerbitzuen kasuan eta zenbatetsitako balioaren arabera araudi indardunak hala aurreikusten duen kasuetan.*

- *Hornitzaileei ordaintzea kontratazio publikoaren esparruan aurreikusitako epearen barruan.*

VI.5.5. Udalaren transferentziengatiko gastuak

Transferentzia arruntetako gastuak 220.000 eurokoak izan ziren, eta gastu guztien ehuneko lau egiten dute; haien betetze-maila behin betiko kredituen ehuneko 87koa izan zen.

Aurreko ekitaldian baino ehuneko 11 gehiago izan ziren; arrazoi hauek izan ziren batez ere horretarako:

- Musika Eskola erakunde autonomoarentzako transferentzien igoera, 13.450 eurokoa.
- Enpresa pribatuei egindako transferentzien igoera, 11.045 eurokoa; transferentzia horiek "El Romeral" kirol-instalazioen kudeaketa integraleko kontratuaren adjudikazio-hartzailea den enpresari egin zaizkio.

Berrikuspena honako partida hauek direla-eta egin da:

Aurrekontu-partidak	Aitortutako betebehargarbiak, 2018
Udalaren Musika Eskolari egindako ekarpena	126.800
Igerilekuetako zeharkako kudeaketarako hitzarmena	53.045
Larrialdi sozialeko egoerei erantzutea	17.999
Castejón Kirol Klubarentzako dirulaguntza	10.000

Berrikuspen hori eginda, esan beharra daukagu ezen, oro har, transferentziak eta dirulaguntzak aplikatzekoa den araudiaren arabera eman, kudeatu eta ordaindu direla: Hala eta guztiz ere, honako hau nabarmendu behar dugu igerilekuetako zeharkako kudeaketarako hitzarmenaren finantzaketa dela eta:

- Udal igerilekuak 2007ko ekitaldian adjudikatutako ABEEari emandako emakida baten bidez kudeatzen dira.

- Kudeaketa dela eta, desadostasunak izan dira ekitaldi jakin batzuen likidazioetan, eta horrek ekarri zuen enpresa adjudikazio-hartzaileak erreklamazioak eta errekurtsioak jartzea, bide judizialean baietsi direnak; bide judiziala ez da irmoa, txosten hau eman dugun egunean udalak dagokion errekurtsioa aurkeztua baitu.

Enpresa adjudikazio-hartzaileak erreklamazioen ordainketa bere gain hartu beharko balu, zenbatekoa 120.000 eurokoa izanen litzateke, gure txostenaren VI.5.1 atalean aipatu bezala.

- Gaur egun udala igerilekuen kudeaketaren beste lizitazio baterako pleguak prestatzen ari da.

VI.5.6. Udalaren inbertsioak

390.00 milioi euroko inbertsioak egin ziren, eta 2018an aitortutako betebeharrak guztien ehuneko zazpi egiten dute. Haien betetze-maila behin betiko kredituen ehuneko 78 da; honako hauek dira inbertsio nagusiak:

Aurrekontu-partidak	Aitortutako betebeharrak garbiak, 2018
Udaletxeko igogailua	90.829
Banda zabalaren zabalkundea	43.130
Bide publikoen zoladura-espaloiak berritzea	39.387
Bide publikoen irisgarritasuna	30.601
Ikastetxe publikoa hobetu eta birmoldatzea	28.321
Parke eta lorategiak berritzeko egindako inbertsioak	27.418
Plaza zirkularra eraberritzea	23.719
Hilerria zabaltzea	21.999

Inbertsioen kapituluko gastuen berrikuspena 2018an lizitatu eta adjudikatutako obra-kontratuen lagin honen gainean egin da:

Deskribapena	Esparru juridikoa	Adjudikazio-prozedura	Lizitazioaren zenbatekoa*	Zenbat lizitatuak	Adjudikazioaren zenbatekoa*	Beharpena (%)
Zoladura eta sareak eta argiteria publikoa El Romeral kalean	2/2018 Foru Legea	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik behera	401.949	1	387.881**	3
Udaletxean arkitektura-oztopoak kentzea eta igogailua jartzea	6/2006 Foru Legea	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik behera	90.120	3	85.592	5

* Zenbatekoa BEZik gabe

** 2019an exekutatu beharreko kontratu baten aurretiko izapidetze-espeditu bati dagokio

Oro har, kontratuen lizitazioa eta adjudikazioa aplikatzeko den kontratu-legediaren arabera izapidetu dira. Era berean, "Arkitektura-oztopoak kentzeko eta udaletxean igogailuak jartzeko" espedituari dagozkion gastuak onetsita, esku hartuta, justifikatuta eta behar bezala kontabilizatu daude, eta epe barruan ordaindu dira.

VI.5.7. Tributuak, prezio publikoak eta beste diru-sarrerak batzuk

Udalaren tributu bidezko diru-sarrerak 4,02 milioi eurokoak izan ziren, eta diru-sarrera guztien ehuneko 66 dira. Hauek dira:

Aurrekontu-partidak	Aitortutako eskubide garbiak, 2018
Zuzeneko zergak	3.077.351
Landa-lurraren gaineko kontribuzioa	9.673
Hiri-lurraren gaineko kontribuzioa	751.542
Lurraren kontribuzioa, ondasun bereziak	1.273.699
Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga	231.973
Hiri-lurren balioaren igoera	724
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	809.741
Zeharkako zergak	17.338
Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga	17.338
Tasak	929.603
Tributu bidezko diru-sarrerak, guztira	4.024.293

Hauek dira Osoko Bilkurak 2018ko ekitaldirako onetsi zituen ordenantza fiskaletan ezarritako zerga-tasak:

Tributua	Udala	2/95 Foru Legea
Hiri-lurraren gaineko kontribuzioa	0,414	0,10 - 0,50
Landa-lurren kontribuzioa	0,808	
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	1,4	1 - 1,4
Lurren balio-gehikuntza	10,58	8-25
Eraikuntza, instalazioa eta obrak	4,54	2-5

Udalak likidatzen dituen zergak direla eta, honako alderdi hauek nabarmendu behar ditugu:

- Diru-sarreraren aurrekontuan garrantzi handia dute, bai Castejongo zentral termikoen lurraren kontribuzioak, zentral horiek zerga-esparruaren arabera ondasun berezi gisa kalifikatuta baitaude, bai jarduera ekonomikoen gaineko zergak. Etorkizunean, baliteke diru-sarrera horietan eragitea Auzitegi Gorenak 2016ko urrian eta 2019ko martxoan zentraletako batean multzo termiko baten instalazioaren deuseztasunari buruz emandako epaiek.

- Azkeneko balorazio-ponentzia 2005ekoa da; beraz, askogatik gainditu da azaroaren 21eko 12/2006 Foru Legeak, Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistroari eta Katastroei buruzkoak, balorazio-ponentzia derrigor eguneratzeko ezartzen duen bost urteko epea. Hala ere, 2011n, AP-15 eta AP-68 autobideei dagokien udalez gaindiko balorazio-ponentzia egin zen; eta 2012an, berriz, udalerrian kokatutako ziklo konbinatuko zentral termikoei buruzko balorazio partzialeko ponentzia.

- Tributuen berrikuspena honako diru-sarrerak hauek direla-eta egin da:

Zergak	Aitortutako eskubide garbiak, 2018
Hiri-lurraren gaineko kontribuzioa	751.542
Lurraren kontribuzioa, ondasun bereziak	1.273.699
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	809.741
Tasak	Aitortutako eskubide garbiak, 2018
Egoiliarren kuoten bidezko diru-sarrerak	578.766

Egiaztatu dugu ezen, orokorrean, zergen likidazioa eta haien diru-bilketa ordenantzei eta kasuko arauari jarraituz egin direla.

Hala ere, adierazi behar dugu udalak 2013 eta 2014 ekitaldietarako kontrol fiskaleko azken udal plana onetsi zuela. Txosten hau emateko datan, ez dago jasota plan berririk onetsi denik.

Gure gomendioak:

- *Indarrean dagoen legediak agindutako epearen barruan onestea balorazio-ponentzia berria, eta lurralde-kontribuzioaren tasak bateratzea lege indardunean ezarritako tartearen barruan.*

- *Kontrol Fiskaleko beste udal plan bat onestea.*

VI.5.8. Udalaren transferentzia arruntengatiko diru-sarrerak

Diru-sarrera horiek 1,56 milioi eurokoak izan ziren, eta horietatik 890.000 euro, ehuneko 57, Toki Ogasunek Nafarroako Zergetan parte hartzeko Funtsari dagozkie.

Diru-sarreraren honako partida hauek berrikusi ditugu:

Aurrekontu-partidak	Aitortutako eskubide garbiak, 2018
Oinarrizko gizarte-zerbitzuaren programetarako dirulaguntza	192.672
Toki Administrazioaren transferentzia, montepioa finantzatzeko	120.466

Egindako berrikuspenetik egiaztatu dugu, oro har, jasotako diru-sarrerak aplikatu beharreko araudiaren arabera likidatu direla.

VI.5.9. Udalaren ondarezko diru-sarrerak

Ondare bidezko diru-sarrerak 270.000 eurokoak izan ziren, eta diru-sarrera guztien ehuneko lau egiten dute. Likidazioa behin betiko aurreikuspenen ehuneko 97 izan zen, eta aurreko ekitaldiarekin alderatuta ehuneko 55 handitu ziren.

Handitze hori, nagusiki, 2018ko ekitaldian jabari publikoko hainbat ondasunen administrazio-emakida formalizatzetik eratorritako diru-sarrerei egotz dakieke, honako datu hauen arabera:

Aurrekontu-partidak	Aitortutako eskubide garbiak, 2018
Bide publikoa okupatzeko emakida administratiboa	99.311

Egindako berrikuspenetik, egiaztatu dugu adjudikazio- eta likidazio-prozedura plegu arautzaileen arabera izapidetu eta kudeatu dela.

VI.5.10. Hirigintza

Udalak ez du lurzorua udal ondarearen erregistroa eratu, ez eta hirigintza-hitzarmenen erregistroa ere.

Udal plangintza indarduna 1991ko maiatzean onetsitako arau subsidiarioek osatzen dute, 2017ko urriaren 13ko 198. NAO on argitaratutakoek. 2010eko ekitaldian Udaltzako Udaltza Orokorrari hasierako onespina eman zion, Nafarroako Gobernuari igorri zitzaion eta jendaurrean jarri zen. Txosten hau emateko datan, ez dago jasota plan hiri behin betiko onetsi denik.

Gure gomendioak:

- *Foru Komunitateko Administrazioa premiatzea udal plan orokorra behin betiko onetsi dezan*¹.
- *Lurzorua udal ondarearen erregistroa eratzea, lurraldearen antolamenduaren eta hirigintzaren esparruan aurreikusitako helburuak betetzeko.*
- *Hirigintza-hitzarmenen erregistroa eta artxiboa eratzea.*

VI.5.11. Ingurune teknologikoa.

Informazio- eta teknologia-sistemek funtsezko eginkizun bat dute edozein erakunderen kudeaketan. Daukaten garrantzia dela eta, Castejongo Udalaren Kontu Orokorrari buruzko txostenean konklusio batzuk jaso ditugu "ingurune teknologikoari" edo informazio ekonomiko-finantzarioko sistemei buruz eta informazio-teknologiaren gainera Udalaren kontrolari buruz.

¹ Udaltza Orokorrari buruzko alegazioaren bidez aldatutako paragrafoa.

Informazioaren teknologien kudeatzailea Animsa udal sozietate publikoa da. Azterketa hori egiteko, galdetegi orokor bat bidali eta dokumentazioa eskatu genuen; horrek aukera emanen zigun ingurune teknologikoa orokorrean ebaluatzeko.

Oro har, zibersegurtasunaren kudeaketa egokia egiten bada ere, honako akats hauek aipatu behar ditugu:

- Ez zaio heldu Segurtasun Eskema Nazionalaren araberako ezarpenari.
- Ez dago jasota erabiltzaile administratzaileen baimena eta erabilera arautzen dituen eta erabiltzaile administratzaile izendunak sortzera behartzen duen idatzizko prozedurarik dagoenik.
- Pasahitzak autentifikatzeko politikak nolabaiteko ahultasun-maila du.
- Gailu mugikorren segurtasun politikak ez dira nahikoak.
- Ez dago jasota Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra betetzeari buruzko dokumentaziorik.
- Ez dago jasota faktura elektronikoa bultzatzeko eta fakturen kontularitza-erregistroa sortzeko abenduaren 27ko 25/2013 Legeak eskatutako sistemen urteko auditoretza-txostena.

Gure gomendioak:

- *Segurtasun Eskema Nazionalaren araberako ingurune teknologikoa ezartzea.*
- *Administrazio-pribilegioen kudeaketa hobetzea, erabiltzaile administratzaileen baimena eta erabilera arautzen duen idatzizko prozedura bat sortuz, erabiltzaile administratzaile izendunak sortzera behartuz, eta kontu generikoak erabiltzeko biderik eman gabe.*
- *Pasahitzen bidezko autentifikazio-politika indartzea, haren konfigurazioa behartuz ohiko jardun-bide egokiei jarraitzea, hizki, zenbaki eta karaktere bereziak izan ditzaten.*
- *Gailu mugikorren segurtasun politikak indartzea.*
- *Datu pertsonalen babesaren esparru arautzailea betetzen dela dokumentatzea.*

VI.5.12. Musika Eskola (erakunde autonomoa)

Honako hauek dira aurrekontu-betearaztearen datuak:

Gastuak, kapituluz kapitulu

Deskribapena	Hasierako kreditua	Aldaketak	Behin betiko kreditua	Aitortutako betebeharrak	Betetakoa (%)	Ordainketak	Ordainketa (%)
1. Langile-gastuak	180.750	0	180.750	177.944	98	177.015	99
2. Ondasun eta zerbitzuetan egindako gastu arruntak	11.400	0	11.400	8.017	70	8.017	100
6. Inbertsio errealak	2.000	0	2.000	1.738	87	1.738	100
Guztira	194.150	0	194.150	187.699	97	186.770	100

Diru-sarrerak kapituluz kapitulu

Deskribapena	Hasierako aurreikuspena	Aldaketa	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako eskubideak	Betetakoa (%)	Kobrantzak	% Kobrantza
3. Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	43.850	0	43.850	42.703	97	41.608	97
4. Transferentzia arruntak	150.300	0	150.300	150.159	100	150.159	100
Guztira	194.150	0	194.150	192.862	99	191.767	99

Erakunde autonomoak gastatutako 100 euro bakoitza honako hauetarako erabili da eta honako hauen bidez finantzatu da:

Gastuaren izaera	Ehunekoak	Finantza-iturria	Ehunekoak
Langileak	95	Prezio publikoak (ikasleen kuotak)	22
Bestelako gastu arruntak	4	Transferentziak	78
Inbertsio errealak	1		

2018an, guztira, 11 langile zeuden. Hona haiek nola banatzen diren:

Lanpostua	Zenbakia	Kontratua	Kontratua
Irakasleak	10	9 kontratu mugagabe ez-finko*	Aldi baterako lan kontratudun 1
Administraria	1	Aldi baterako lan-kontratudunak	
Guztira	11		

* Horietako bat zuzendaria eta irakaslea da

Egin den azterketatik honako alderdi hauek azpimarratu behar ditugu:

- Ez dago langileen kopurua eta araubide juridikoa jasotzen duen plantilla organikorik.
- Irakasleetatik bederatziz langile mugagabe ez-finko gisa aitortu dira; aitortze horren jatorria, zuzendariaren kasuan, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiaren 2005eko urriko Lan Arloko Salaren epaian dago; gainerako zortzien kasuan, berriz, Alkatetzaren 2015eko ekaineko aitorpenean.
- Erakunde autonomoaren administrazio- eta kontabilitate-kudeaketa ia osoa udalak egiten du; organismoaren kudeaketa, berriz, musika-irakaskuntzaren zerbitzuaren funtzionamenduari buruzko gaietara mugatzen da batez ere.
- Musika Eskolaren 2018ko ekitaldiko prezio publikoen tarifak onesten dituen ordenantza ez dago oinarrituta dagokion kostuen azterketan.

Bestalde, adierazten dugu 2018ko ekitaldian Musika Eskolak 2017ko ekitaldirako indarrean zegoen Ordenantza Fiskalean onetsitako prezioak aplikatzen jarraitu duela, 2018ko ekitaldiari dagozkionak aplikatu beharrean.

Gure gomendioak:

- *Langileen kopurua eta araubide juridiko jasoko duen plantilla organiko bat onestea.*
- *Erakunde autonomoa udal zerbitzu bilakatzeari buruzko azterketa egitea.*
- *Prezio publikoen tarifak babestea behar den kostuei buruzko azterketarekin, eta ekitaldi fiskal indardunari dagozkionak aplikatzea.*

Miguel Ángel Aurrecochea Gutiérrez auditorea arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, indarrean dagoen araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2020ko otsailaren 18an

Lehendakaria,

Asunción Olaechea Estanga

BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK

2019ko azken hilabeteetan, Kontuen Ganberak, kanpoko auditoretza baten bidez, Udalaren eta haren Musika Eskolaren 2018ko kudeaketa fiskalizatzeko lana egin du.

Alkatetzatik eskerrak eman nahi dizkiet bai Kontuen Ganberari, bai bere teknikariei, bai Udaleko Idazkaritzari eta Kontu-hartzaitzari ere, lana ahalik eta baldintzarik onenetan egitea posible egin dutelako.

Lehenik eta behin, nahitaezkoa eta beharrezkoa da testuinguru egokian koka gaitzela, fiskalizazio-lanaren emaitzen balorazio objektiboa egin ahal izateko. Fiskalizazioa 2018ko ekitaldian egin da, 2019ko irailean eta urrian. Gaur 2020ko otsailaren 14an gaude; beraz, urtebete eta lau hilabete igaro da Kontuen Ganberak egindako lanetik. Fiskalizazio-lana gaur egun egiten balitz, aurrerago ikusiko dugun bezala, egoera aldekoagoa izanen litzateke organo fiskalizatzailearen txostenak gomendatutako alderdi batzuetan, horietako bakar batean ere txarra izan gabe. Izan ere, txosteneko gomendio batzuk ebazteko eta zuzentzeko oso fase aurreratuan daude, baina beste batzuk zuzendutzat jo daitezke jada.

Behin-behineko txostena jaso eta arretaz irakurtzeko aukera izan ondoren, Alkatetza honek txosten hau egin du, Kontuen Ganberak Udalari egindako fiskalizazio-txostenak ematen dizkion datu, ondorio eta gomendioei buruzko zenbait zalantza eta iruzkin jasotzeko.

Zalantzei dagokienez: Lehenik eta behin, agian zalantza nagusia da zergatik baieztatzen den txostenean Castejongo Udalak ez duela betetzen hornitzaileei ordaintzeko ezarritako dagoen batez besteko epea; izan ere, arlo administratibo-ekonomikoa indartzeko helburuetako bat hori izan zen, fakturak eta ordainketak izapidetzean kudeaketa hobe eta arinagoa izatea, eta are gehiago, Udalaren Kontu-hartzaitzatik behin baino gehiagotan adierazi denean Udalak bete egiten duela hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epea.

Bigarrenik, argibide edo azalpen bat behar dut Udalaren kontu-hartzaitzak finantza- eta eraginkortasun-kontrolik ez duela egiten dioen baieztapena dela eta. "Finantza- eta eraginkortasun-kontrola" terminoak zehazki zer adierazten duen jakin behar da, lan edo funtzio hori ez egiteko arrazoiak zein diren jakiteko eta egoera hori zuzentzeko, ez betetzearen arrazoiak aztertuta.

Zerbitzu-kontratuei dagokienez: Egia da gaur egun Udalak zenbait zerbitzu-kontratu dituela eguneratzeke eta berritzeke, duela urte batzuetatik hona indarrean jarraitzen dutenak. Baina egia da, era berean, aurreko Udalak 2015ean jada egoera horretan aurkitu zituen zerbitzuei buruz ari garela. Kontratu garrantzitsu batzuk, aseguruaren eta 0-3 zentroaren kudeaketaren kontratuak kasu, aurreko legegintzaldian lizitatu eta eguneratu ziren; beste batzuk, berriz, ezin izan dira orain arte lizitatu, hainbat zirkunstantzia direla medio. Honako hauek dira zirkunstantzia horiek, besteak beste: udal honen lan-karga handia, 2015ean ebazteke utzitako arazo bolumena, akordio politikorik eza eta Udalaren behar eta arazo guztiei erantzun ahal izateko giza baliabiderik eza. Eta horri guztiari gehitu behar zaio Kontratu Publikoari buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legea onesteak ekarri duen zailtasun gehigarria; izan ere, ziurgabetasuna sortu da foru legearen aplikazioko alderdi jakin batzuetan, eta espedienteen nahitaez jaso beharreko dokumentu jakin batzuk eskatzen dira, eta adjudikazio-irizpide berri batzuk aplikatu behar dira, eta, horrenbestez, Udalak kontratazio publikoaren agertokiaren betebeharrei aurre egiteko behar diren giza baliabideak falta ditu. Udaleko teknikariek alkatetzari helarazi izan diote ziurgabetasun hori, azalduz legeak berak 119. artikuluan ezartzen duela Kontratazio Publikorako Batzordeari honako eginkizun hauek dagozkiola:

d) Nafarroako Gobernuari proposatzea eredu normalizatuak onets ditzala, kontratuen prestaketa, adjudikazioari eta aldaketari buruzko agiriarenak.

Halaber, aipatzen da prestakuntza falta dela, zeina hamaseigarren xedapen gehigarrian ezarzen baita. *Langile publikoen prestakuntza.*

Adjudikazio-organotako, kudeaketa-organotako eta administrazio-espedienteen kontu-hartzaitzaren ardura duten organoetako kide guztiek prestakuntza jasoko dute berdintasun, irisgarritasun eta ingurumen arloetan, legeko betebeharrak betetzen direla zaintze aldera. Horretarako, Nafarroako Gobernuak langile publikoentzako prestakuntza-jardunaldiak antolatuko ditu, eta intereseko eskuliburuaren argitalpenean lagunduko du. Bada, hori guztia dela eta, orain arte

ezin izan dira gaurkotu zerbitzu-kontratu guztiak. Bidenabar, esan dezagun gai eta egoera hori ez dela bakarrik udal honetan eragiten duen kontua.

Aitzitik, amaitutako zerbitzu-kontratuak eguneratzen hilabete askotan aritu gara lanean. Izan ere, hurrengo aste edo hilabeteetan, horiek eguneratzeko, konplexuenetako eta garrantzitsuenetako batzuk lizitatuko dira, hala nola El Romeral kirol gunearen kudeaketa, argiaren eta gasaren kontsumo publikoak, musika-eskolaren garbiketa-zerbitzua, taxiaren zerbitzua, jantoki-zerbitzua eta egoitzako garbiketa —horretarako, pleguak edo eskola-jantokiko zerbitzua idazten ari dira— edo eskolako jantoki zerbitzua.

Oraingoz, egiazta daiteke Udalak hilabeteak daramatzala zerbitzu kontratuen deseguneratze horiek zuzentzeko lanean, eta konponbidea emanen diela datozen hilabeteetan, 2020an denak eguneratuta izateko esperantzan.

Igerilekuei dagokionez: Udalak Gesportekin (El Romeral kirol-gunearen zerbitzuaren enpresa adjudikazio-hartzailea) irekita eta ebatzi gabe dauzkan prozesu judizialen txostenak adierazten duenari dagokionez, adierazi behar da berriki jakin dugula Udalak jarritako apelazio-errekurtsoen epaitza, eta Udalaren aldeko dela kasu guztietan. Beraz, oraingoz, baieztatuta dago Udalak ez duela inolako ondorio negatibo eta apartekorik izanen kontuetan kontzeptu horrengatik.

Balorazio-txostenari dagokionez: 2019az geroztik, TRACASA enpresa publikoari dagokio balorazio-ponentzia eguneratzeko lana egitea, Osoko Bilkurak eguneraketa hori egiteko izapideak hasteko akordioa onetsi ondoren. Orain arte ez dira lanak hasi, ez Udalak nahi izan ez duelako, baizik eta enpresak berak, zeukan lan karga dela eta, ezin izan dituelako hasi.

Udal Plan Orokorrari dagokionez: puntu honetan adierazi eta ohartarazi behar da Lurralde Antolamendurako Departamentuak esplikazio zailako atzerapena izan duela plan orokorrak onesteko izapideetan, zehazki Castejongoaren kasuan. Aurreko udala izan zen 2019an izapidetzearen suspertzea bultzatu behar izan zuena, Departamentuak espediente hiru urte eta erdi geldirik eduki ondoren. Beraz, udal honek lan egin du Planaren onspena izapidetu zedin bultzatzen eta, gure ustez, ez da beharrezkoa Udalari jada bultzatu duen zerbait bultzatzea eta; aitzitik, gomendio hori Lurralde Antolamendurako Departamentuari bideratu beharko litzaioke.

Datuak Babesteko Legea betetzeari dagokionez, jakinarazi behar da Udalak datuak babesteko zerbitzuak kanpoko agente batekin, Navadatekin, dituela kontratatuta, eta horren bidez, Udala abian jartzen ari dela segurtasunaren kontrola eta datuen babesa hobetzeko mekanismo guztiak.

Eragozpen-oharrei dagokionez, esan behar dut txosteneko iritziak zalantza handia iradokitzen didala; izan ere, errekurtsogilea zein den adierazten du, eta udal honek urteak daramatza horrela jokatzeko desegokia dela esaten, eta hala jakinarazi izan diegu behin baino gehiagotan Ganberako, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioko eta Toki Administrazio Departamentuko zerbitzu juridikoei. Baina txostenean ez da ezer esaten zerbitzu berberen gastuei buruzko hileroko erreplikaren hori bidezkoa izateari buruz; izan ere, horrek Udalaren eguneroko, hileko eta urteko kudeaketa ekonomiko eta administratiboa oztokatzea besterik ez du lortzen, eta ez du aukerarik ematen, edo gutxienez ere hala aipatzen dute Kontu-hartzailetzan, Udalaren kudeaketa ekonomikorako dituen legezko betebeharrak epeetan bete daitezela.

Udalaren eta Musika Eskola erakunde autonomoaren plantilla organikoari dagokionez, adierazi behar da aurreko gobernu-taldea Udalean sartu zenean nahikoa egoera zaila aurkitu zuela plantilla organikoaren egoera kudeatzeri eta konpontzeari dagokionez; izan ere, plantillaren beraren deserregularizazio- eta deseguneratze-egoerari gehitu behar zaio legegaldi osoan ez zela akordio politikorik izan plantilla berria onesteko. Hori bateraezina da dagoen arazoa konpontzearekin, eta, beraz, ezin izan dira bete plantillaren baldintza ekonomikoen eta lan-baldintzen aldaketek eragiten zieten Osoko Bilkuraren akordioak, eta hori, Udalaren nahiaren aurka bada ere, langileek beren eskubideak aitortzeko abiarazitako prozesu judizial ugariaren ondorioa da. Guk geuk gai hori defendatzen dugu eta harekin ados gaude, eta, era berean, adierazi nahi dugu, jakina, gustatuko zitzaigula egoera hori Osoko Bilkuraren gehiengoaren adostasunez konpondu izana, baina, zoritxarez, aurreko legegaldi osoan ezin izan zen halakorik lortu.

Egoera hain zen konplexua, non 2018ko maiatzean plantilla-proposamen bat babestera iritsi zen talde politikoak ez baitzituen Udalaren aurrekontuak babesten, eta horrek ezinezko egiten baitzuen plantilla organikoaren onspena aurrera ateratzea. Eta ordura arte aurrekontuak ba-

bestu zitzuten taldeek ez zuten plantillaren proposamena babestu. Hau da, ezin izan zen arazoari konponbidea emateko adina gehiengo politiko lortu.

Gaur egun, joera politikoaren aldaketa bat dagoela dirudien honetan, legegintzaldi berri batean, 2019ko urriaren 24an, Ekonomia Batzordeak plantilla organikoa onesteko proposamenaren aldeko irizpena eman zuen hasiera batean, eta Idazkaritzak horren berri eman ondoren, zuzenketa-fase bat egin zen Idazkaritzaren txosteneko ohartarazpenak aintzat hartuta; ondoren, Kontu-hartzailetzari aurkeztu behar zitzaion eta, azkenik, berriro ere Ekonomia Batzordeari. Proposamen hori 2020-01-23an berriz aurkeztu zen Langileen Ohiko Batzordean, eta Batzorde Bereziari, berriz, 2020-02-5ean, eta aho batez onetsi zen. Une honetan, espedientea egiteko fasean dago, behin betiko Batzordearen eta Osoko Bilkuraren esku utz dadin eta onetsi dezan. Onespen hori datozen asteetan gertatuko dela espero dugu.

Udalaren kontuei dagokienez, txostenak dio kontuetako batean titular gisa ageri dela oraindik ere Udaleko aurreko kontu-hartzailea, zeina ez baitago plantillan 2013ko ekitalditik.

Bankuaren akatsa da hori; izan ere, baimendutako sinaduren ziurtagiriak eta komunikazioak bidali izan bazaizkio ere legegintzaldia aldatzen den bakoitzean edo alkatetza eta kontu-hartzailetzako karguetan aldatetaren bat gertatzen den bakoitzean, ez dituzte baimendutako sinadurak beren sistemetan aldatu. Dagoeneko bankuari agindua eman zitzaion akats hori zuzentzeko, eta une honetan egoera hori zuzenduta dago.

Udalaren 2018ko abenduaren 31ko Egoera Balantzearen Aktibo Zirkulatzailerako "Finantza Kontuak" deitutako 9. epigrafean, aplikatzeke dauden beste partida batzuegatiko saldo zordun bat ageri da, 254.893 eurokoa. Udalak ez daki haren izaera eta jatorria zein diren.

"Aplikatzeko dauden beste partida batzuk" izeneko 555 kontua, 2000ko ekitaldian (gaur egungo kontabilitate-programarekin sartzten den lehenengo ekitaldia), 43.401,27 euroko saldo zordunarekin sortu zen irekiera-idazpenean. Kontu horrek sarrerak, gastuak, aurrekontuz kanpokoak eta zuzeneko idazpenak jasotzen ditu, bai abonamendukoak, bai zordunketakoak, positiboak zein negatiboak. 2000ko ekitaldi horretan egindako ohar bakarra -117,23ko zenbateko negatiboko kontaketa-diferentzia da, hartzekoan ageri dena. Itxiera-idazpena azken saldoa baino 43.400,81,46 txikiagoa da.

2001eko ekitaldia 43.400,81 euroko ordainketarekin eta aurrekontuz kanpoko 0,23 euroko ordainketari dagokion beste ordainketa batekin hasi zen. 2001eko ekitaldian egindako ohar bakarrak 866,03 euroko kontaketa-diferentziengatik ordainketak izan ziren. Itxiera-idazpena 42.534,55 eurokoa da.

2002ko ekitaldiko irekiera-idazpenean, 2001eko itxiera-saldotik gain, "sarrera" kontzeptua duten hainbat ordainketa-ohar jasotzen dira, 29.154,49 euroko zenbateko negatiboarekin. Ekitaldiko oharrek honako hauek dira: eurora bihurtzeagatik doikuntzak, berdinketa-diferentziak eta beste berdinketa-diferentzia batzuen ezeztapenak. Amaierako saldoa 71.044,72 euro zorduna da.

2003ko ekitaldian, irekiera-idazpenak, hasierako saldotik gain, "sarrera" kontzeptuko hainbat ordainketa-ohar jasotzen ditu, -26.113,14ko zenbateko negatiboarekin. Itxieraren amaierako saldoa 97.157,86 eurokoa da.

2004tik 2012ra bitarteko ekitaldietan, ez dago aurreko itxiera-saldotik irekitzeaz bestelako oharrik, nagusiki ordainketa edo kobrantzetako zentimoen eta gastu edo sarreretan erregistratutako arteko diferentziak sortutako kontaketa-diferentziak izan ezik. Aipatzeko moduko gauza bakarra da -577,86 euroko bi ordaintze-ohar negatibo dira, zeinetan hirugarrena Nafarroako Foru Komunitatea baita. Nire ustez, Ogasun Publikoaren kontuan BEZagatik jasotakoaren eta Ogasunak itzulitakoaren artean dauden diferentzietan legozkieke (ez da egiaztatu benetan horri erantzuten dioten). Gainera, irekiera-idazpenean Madurga Gil Antonio izeneko hirugarrenaren "O-Emaitzen betebeharra, Aurreko likidazioetan likidatu gabeko BEZa" gisako ohar bat dago, 2.900,00 euroko zordunketako, 2011koa denik ikusten ez dudana, eta 2012an irekiera-idazpenean agertzen dena. 2012ko oharrean, hartzekodunaren fitxan "Trenasa prozeduraren munita erregularizatzea" deskribapena agertzen da.

2012ko ekitaldiaren amaieran 100.634,94 euroko saldoa dago zorretan.

2013ko ekitaldian, aurreko itxiera-saldotik irekitzeaz gain, beste ohar batzuk egin ziren irekiera-idazpenean, guztiak aurrekontuz kanpokoak, bai zordunketakoak bai ordainketakoak, eta horietan

tik 112.899,47 hasierako saldoa atera zen. Gainera, 555 kontuan honako ohar hauek daude ikusgai “Solidaridad” egoitza mistoaren erakunde autonomoa desegiteari buruz eta Udalak haren kudeaketa eta ondarea bere gain hartzeari buruz:

Kontua	Data	Idazpena	Oharra	Jatorria	Kontzeptua	Zorra	Hartzekoa	Saldoa
555	2013/07/01	4727	5	Zuzena	Intsuldaketa Egoitzaren balantzea A 01/0	21.413,17		134.312,64
555	2013/07/01	8859	1	Zuzena	Laguntza baliabideen Itxierako akatsa zuzentzea	22.898,56		157.211,20
555	2013/07/01	8860	2	Zuzena	8859 Idazpena zuzentzea		22.898,56	134.312,64
555	2013/07/01	8861	2	Zuzena	Itxierako akatsak zuzentzea		22.898,56	111.414,08
555	2013/07/01	8862	1	Zuzena	Itxierako idazpena zuzentzea	143.470,12		254.884,20

Itxierako saldo zorduna 254.884,20 eurokoa izan zen 2013an.

2014tik 2018ra bitarteko ekitaldian, kontaketa-diferentzia ez oso esanguratsuak baizik ez ditu jasotzen, 254.893,03 euroko amaierako saldo zorduna handitzen dutenak.

Udalaren 2018ko abenduaren 31ko Egoera Balantzeko funts propioen “2. Ekitaldiko emaitza ekonomikoak” epigrafean jasotako saldoak ez du islatzen 2018ko abenduaren 31ko ekitaldiko emaitza-kontuan ageri den saldoa; izan ere, aurreko ekitaldietako emaitza metatuak sartu dira, 2018ko abenduaren 31ko Egoera Balantzeko funts propioen “1. Ondarea eta erreserbak” epigrafean jaso beharko liritekeenak.

2019ko ekitaldia ixtean, “2. Ekitaldiko emaitza ekonomikoa” epigrafearen saldoaren “1. Ondarea eta erreserbak” epigraferako intsuldaketa jasoko du, 2018ko itxieraren zenbatekoarekin.

Udalaren 2018ko abenduaren 31n itxitako ekitaldietako aurrekontuen ordaintzeke dauden bete-beharrek 217.680 euroko saldoa hartzen dute, 2008ko ekitaldian udal-igerilekuak birmoldatzeko obrak egiteko enpresa adjudikazio-hartzailearekin hartutako zor bati dagokiona. 2009an, enpresa hori hartze-kodunen konkurtsioan deklaratu zen, eta horren amaiera eta sozietatearen azkentzea 2015eko 195. BOEn argitaratu ziren, urriaren 13koan.

Preskripzioagatiko zorrak azkentzeko deklarazio-espeditentea hasiko da, zorren historia aztertu ondoren, saldo hori udalaren kontabilitatean zergatik erakusten den jakiteko, sozietatea likidatzeko prozeduran saldo hori erreklamatu ez denean.

Laburbilduz: espero dugu kontuan hartuko direla txosten honetan jasotako ekarpen guztiak, orain arte posible izan ez den guztia zuzentzeko Udalak duen joera positiboa erakusten dutenak, bai eta hori lortzeko egindako lana ere. Hala ere, ez da bistatik galdu behar 2015ean, legealdi honetan, Udala gobernatzen dugunok —aurreko lau urteetan ere hori egiteko aukera izan genuen— egoera ekonomiko eta administratibo tamalgarria aurkitu genuela. Edozer behar baduzu, zure esanetara naukazu.

Castejonen, 2020ko otsailaren 14an

Alkatea: David Álvarez Yanguas

BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEN ERANTZUNA

Castejongo Udaleko alkateak aurkeztu dituen alegazioak aztertuta, Udal Plan Orokorrekin lotutako alegazioa gehitu diogu txostenari.

Gure ustez, gainerako alegazioetan emandako informazioa txostenari buruzko azalpen bat da, eta ez ditu ondorioak aldatzen; horregatik, txostenari gehitzen dizkiogu, eta behin betiko bihurtzen dugu txostena. Halere, hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epeari, finantza- eta eraginkortasun-kontrolari eta esku-hartzearen eragozpenei buruzko alegazioei dagokienez, honako hau adierazten dugu:

- Apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoak aipatzen duen hornitzaileei ordaintzeko batez besteko aldiaren kontzeptua, merkataritza-zorraren jasangarritasuna betetzen dela egiaztatzeko erabiltzen dena, uztailaren 25eko 635/2014 Errege Dekretuan ezarritako metodologiaren arabera kalkulatu da (abenduaren 22ko 1040/2017 Errege Dekretuak aldatu zuen errege dekretu hori). Kalkuluan, ordaindutako eragiketak zein ordaintzeke daudenak hartzen dira kontuan. Adierazle hori eta hornitzaileei ordaintzeko gehieneko epea desberdinak dira —abenduaren 29ko 3/2004 Legean araututako berankortasun-arloko araudian ezarritakoa da epe hori—.

- Finantzen eta eraginkortasunaren kontrola barne-kontrolako eginkizunak dira, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legean ezarritakoak.

Kontrol finantzarioaren helburua da Udalaren eta haren menpeko erakundeen zerbitzuen alderdi ekonomiko eta finantzarioaren funtzionamendua egiaztatzea; eraginkortasun-kontrolan, ordea, helburuen betetze-maila egiaztatuko da, bai eta zerbitzu edo inbertsioen funtzionamenduaren eta errendimenduaren kostuaren analisisa ere.

- Kontu-hartzaitzak aurkeztutako eragozpen-oharrei dagokienez, desadostasuna ebazten duen ebazpenak edo akordioak izaera betearazlea duela kontuan hartuta, uste dugu ez dela ego-kia arrazoi beragatik prozeduraren fase desberdinak konpontzea.

Hala, betebeharra aitortzeko fasean, betearazpen-fase horren berezko alderdiak egiaztatuko dira, hargatik eragotzi gabe Kontu-hartzaitza Organoak agerian jar dezala aurreko fasearen eragozpena eta desadostasunaren ebazpena, baina alderdi zehatz hori ez da ulertu behar betebeharra aitortzeko fasearen eragozpen gisa.

Iruñean, 2020ko otsailaren 18an

Lehendakaria,

Asunción Olaechea Estanga

